



Audit-Akularren beste proiektu bat egitea erabaki dute

EB/IUK eta PPK ere bat egin dute akordioarekin. Hitzarmenaren arabera, Audit-Akularren 2.500 etxebizitza egiteko hasierako proiektua bazterrean geratu eta beste egitasmo bat egingo da. Horretarako, lehiaketa publikoa deituko du Udalak.

Idea lehiaketara aurkeztutako enpresen hiru baldintza kontuan hartu beharko dituzte: Audit-Akularreko etxebizitzaren arazoari konponbidea emateko proiektua dela, babes ofizialeko etxebizitzak direla ardatza, eta egitasmoak eskualdearen beharrak aintzat hartu behar dituela eta ez soilik Donostiarenak.

Lehiaketara aurkeztutako enpresen artean hiru aukeratuko dituzte udal teknikariek, eta auzo berria diseinatzeko proiektuaren zirriborroa otsailerako aurkeztu beharko dute. Etxebizitzek gain, azpiegituren, berdeguneen eta bestelako diseinuen orokorra ere egin beharko dute zirriborro horretan.

Eztabaida prozesua, martxoan

Martxoan hasiko da behin betiko egitasmo aukeratzeko eztabaida. Prozesuan, honako hauek parte hartuko dute: alderdi politikoetako ordezkariak, Donostiako Plan Orokorra berriro aztertu behar duen lan taldeak, EHUKo Arkitektura Fakultate-

Audit-Akular bideratzeko hitzarmena

Audit-Akularreko egitasmoa ez aurrera ez atzera egon da joan den legealditik, ez baitu orain arte oposizioaren babesa izan. Hala ere, auziari irtenbidea emateko, hitzarmena egin dute PSE-EEk eta EAJ-EAk eta gerora, EB/IUK eta PPK ere bat egin dute haiekin. Lehiaketa publikoa deitu ondoren, eztabaida prozesua egitea aurreikusi da.

Ainhua Irazu

Audit-Akularren etxebizitzak egiteko proiektua geldirik egon da joan den legealditik, PSE-EEren proposamenak oposizio alderdien babesa ez zuela-

ko. Oposizio alderdi politikoen ustez, egitasmoa gauzatzeko, aurrena Plan Orokorra aldatu beharra zegoen. Joan den astean, ordea, auzia konpontzeko urratsa eman zuten. Izan ere, hitzarmena adostu zuten PSE-EEk eta EAJ-EAk. Ondoren,

Auzotarren iritziak

Agustin Rodriguez

Altza XXI Plataformako kidea

"Aldaketa handia eman da Donostiako Udala osatzen duten alderdien jarreran. Gainera, lortu duten hitzarmen politikoaren helburuak, ez datoz bat Altzak dituen beharrek. Ondorioz, beste behin ere, auzo politikoen jokoan biktima izan daiteke, 60ko eta 70eko hamarkadetan gertatu zen bezalaxe".

Jose Maria Fernandez

Koxkorra kultur elkarteko presidentea eta Pasaiako Jaizkibel mendi taldeko kidea

"Audit-Akularreko proiektuak beldurra ematen dit. Inguru hori oso garrantzitsua da auzotarrentzat, berdegune bakarra baita. Donostian gauzak txukun-txukun egiten dira, baina hemen ez. Altza etxek josi eta lotarako auzo bihurtu dute. Gainera, proiektu horrek zutik dirauten baserri eskasak botatzea eragingo du, eta hori gure kultura da".

Iñigo Landa


Altza XXI Historia Mintegiko kidea

"Aurreko proiektuarekin kritikoak ginen eta oraingo akordioarekin ez dugu baikor izateko arrazoirik. Nire ustez, oraingo proiektua mahaigaiheratzerakoan ere, ez dute Altza kontuan hartu; biztanle dentsitate handiko auzo errésidentziala, altza handiko etxeak eta abar. Zoritxarrez, aurretik gertatutakoa errepika daitekeelakoan gaude, historia errepika daiteke".

ko adituek eta Gipuzkoako Arkitektura Eskola Ofizialeko ordezkariak batek. Talde horiek aukeratu beharko dute behin betiko egitasmoa. Ondoren, enpresa irabazleak egitasmoa zehaztu eta Plan Orokorrean egin beharreko aldaketak diseinatuko ditu. Prozesu guztia zenbait urtez luza daiteke, eta jakina, azkenean Udaltzarrak hartuko du behin betiko erabakia.

Alderdi politikoak pozik

Udalbatzan ordezkariak duten alderdi politiko guztiek balorazio ona egin dute hitzarmenaz. "Ados jarri gara, eta horri esker, hiru proiekturen artean aukeratu ahal izango dugu", esan digu Roman Sudupe EAJ-EAko bozeramaileak. Duñike Arribalaga IU/EBko zinegotziak ere garrant-




Altxa XXI plataformaren prentsaurreko bat

zitsutat jo du akordioa, "Auditz-Akularren babes ofizialeko etxebizitzak egitearen alde egon garelako beti".

PPk, dena den, orain arte adostasuna lortzeko saiakerarik ez egitea leporatu dio PSE-EEri. Carlos Sancho PPko zinegotziaren hitzetan; "lehenago akordiorik lortu ez badugu, Udaltzarrak horretarako aukerarik eman ez digulako izan da". Hain zuzen, joan den legealdian PPk eta PSE-EEK gobernu ituna apurtu zutenean, Auditz-Akular izan zen hausturaren arrazoietakoa bat.

Odon Elorza alkatearen ustez, azkenik, "beharbada hiru urte galdu ditugu, baina orain proiektua gauzatzeko bermea dago".



Pedro Gonzalez

Elkartasuna Santa Barbarako auzo elkarteko diruzaina

"Gu Auditz-Akularreko proiektuaren alde gaude. Hala eta guztiz ere, egitasmo horri ekin baino lehen, Altxa beste lehentasun batzuk ditu: anbulatorioan zerbitzu egonkorra ezartzea, kaleko segurtasuna indartzea... Beraz, arazo horiek konpondu beharko lirake lehendabizi. Bestalde, Auditz-Akularreko egitasmoa gauzatzeko ondo zehaztu behar dira kontuak: aparkalekuak, etxebizitza kopurua, berdeguneak..."

Maria Jose Azpeitia

Harri Berri ikastolako guraso elkarteko diruzaina

"Etxebizitzaren arazo larria da, eta gazteen-tzako etxebizitza merkeak egitearen alde nago. Hala eta guztiz ere, Auditz-Akularreko egitasmoari buruz zuhurra naiz. Izan ere, Altxan orain arte gehiegikeriak egin dira: etxeak nonnahi eta berdegunerik ez. Auditz-Akularren zerbait egitekotan, ondo egin izan dadin, berdeguneak, aparkalekuak, behar bezalako errepideak eta abar behar dira".

Kale kantoitik

Auzi luzea

2000

Ekaina

Udal Gobernuak Auditz-Akularreko proiektua aurkeztu zuen. Artean, PSE-EE eta PP zeuden Udaltzarrak. Proiektuaren aurka, Altxa XXI Herri Ekimena sortu zen.

2001

Udala Auditz-Akularren lurak erosten hasi zen.

2002

Otsaila

Udal Gobernuaren bileran, proiektuaren kontra egin zuen PPk.

Martxoa

Udalbatzak bilera egin zuen hilaren 5ean eta PSE-EE besterik ez zen egitasmoaren alde agertu. 25ean berriro aztertu zuen gaia Udaltzarrak, eta PPk aldeko botoa eman ez zuenez, gobernu ituna apurtu zen.

Azaroa

Proiektua eztabaidatu zuten Udaltzaren ezohiko bileran, baina oposizioak ez zuen babestu.

2003

Otsaila

Altxa XXI-ek Auditz-Akularren parkea egiteko egitasmoa aurkeztu zuen.

Uztaila

Auditz Akular berriro ere mahalaigean. Osoko bilkuran, oposizioak (EAJ-EA, PP eta IU/EB) aurka egin zuen.

Iraila

Udal Gobernuak lehiaketa publikoa deitu zuen. EAJ-EAK eta Altxa XXI plataformak lehiaketa bertan behera uztea eskatu zuten. PSE-EEren eta EAJ-EAren arteko negoziazioak hasi ziren.

Urria

PSE-EEK eta EAJ-EAK hitzarmena aurkeztu zuten. Gerora, IU/EBk eta PPk bat egin dute akordioarekin.